

2



2

3

Programazioa ZINEMA
ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Programazioa ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Tabakalerako asteroko **Nosferatu zikloak** harrera bikaina izan zuen 2023an, eta **Frantziako Polar** edo zinema beltzeko genero ezaguneko hogeita hamarren bat filmen atzerabegirako bat eskaini zen. Euskadiko Filmategiarekin batera espainieraz eta euskaraz argitaratutako bi libururi esker, aparteko indarra eman zitzaion Estatu mailan Zinemaren Historia aztertzeko ekimen horiei.





Donostia Kulturak aurten diruz lagundu dituen jaialdien artean, gure espazioetan egin ziren -erabat edo zati batean- **Dock of the Bay XVII** (maiatzean), film laburrei eskainitako **Donoskino VII** (urrian), eta **Itsaspeko 47. Zinema Jaialdia** (azaroan).

Jaialdi horiek eta aurrerago aipatuko ditugun beste ekimen batzuek, hain zuzen ere, erakusten dute ikus-entzunezkoekin lotutako kolektiboek eta elkarteek etengabe jarraitzen dutela lanean, ingurunean kultura-eskaintza eta -sorkuntza eraikitzen.



Menditour 2023

Zinema eta Mendia uztartzen dituen **Menditour** zikloko saioek (urtarrilean) harrera ona izaten jarraitu zuten, baita **Zinegoak** jaialdiaren hedapenak (ekainean) eta **Emakumeen Etxea** ziklo berriak ere (azaroan); 2023ko edizioan, Tabakalerarekin lankidetzan, **Cecilia Bartolomé** zinemagileari eskaini zitzaion azken jaialdi hori.



Después de 2, Cecilia Bartolomé zikloa

Antzoki Zaharrean, **gizarte arloko ikus-entzunezko hainbat gala** ospatu zen, besteak beste: Larrotxene Kultur Etxearen ikasturte amaierako **Bideoaldia**; AGISAS gala, **Bideak Zabalduz** proiektuarekin (abenduan), eta **Begiradak** jaialdiaren amaierako gala (abenduan). Victoria Eugenia Antzokian, bestalde, Atzegiko ikasleek haien trebetasunak erakutsi zituzten ekainean, ikasturte amaierako galan, eta Antzoki Zaharrean, urrian, elkarte horren beraren ikasturte hasierako kanpaina aurkeztu zen.

Abenduaren 11n, gainera, **Giza Eskubideen Jaialdiak Insumisas** dokumentalaren estreinaldi berezia antolatu zuen, beste erakunde batzuekin batera.

Tinko euskara elkartearekin hitzartuta, **Euskara Zine Aretoetara** programak ikasleak zinema-aretoetara eramaten jarraitu zuen, adin-taldean arabera hautatutako filmen gaiak lantzeko gida didaktiko eta guzti.

Azkenik, **Bang Bang Zinema** egitasmoak bere saio parte-hartzaile arrakastatsuekin jarraitu zuen, horietako bat **Beldurrezko Zinemaren Astearekin** lankidetzan.



Zinegoak hedapena, *Perpetua felicidad*